

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

KULTURA ETA KIROL SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 588/2021 Erabakia, urriaren 5ekoa. Onespena ematea 2021erako lankidetzaren hitzarmena izenpetu duten Arabako kirol federazioei ekarpen osagarria egiteari

Foru Gobernu Kontseiluaren martxoaren 9ko 121/2021 Erabakiaren bidez, Arabako Foru Aldundiak eta Arabako kirol federazioek, administrazioaren erakunde laguntzaile gisa, laguntzeko deialdia onartu zen.

Erabaki horretan oinarriturik, Arabako berrogeita hiru kirol federazioekin izenpetu zen lankidetzaren hitzarmena. Federazioari bakoitzari urteko gutxieneko ekarpena ordaindu zitzaion, guztira, 129.000,00 euro.

Hitzarmena izenpetu zuten Arabako kirol federazioek 121/2021 Erabakiaren II. eranskinaren bigarren paragrafoan adierazitako agiriak igorri behar zituzten, erabaki horren II. eranskineko laugarren puntuaren adierazten diren irizpideak aplikatuta hitzarmenetako bakoitzean aurreikusitako ekarpen osagarria egitearren. Erabilgarritasuna 211.000,00 eurokoa zen.

Lehen adierazitako agiriak aurkezteko epea amaitu eta gero, horiek azterturik eta behin betiko ebazpenaren proposamena ikusirik, bidezkoa da lankidetzaren hitzarmenak izenpetu dituzten Arabako kirol federazioentzako ekarpen osagarriak ebaztea.

Horregatik, dagozkidan ahalmenak baliatuz, eta Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuak proposatuta, honakoa

ERABAKIA

Lehenengoa. I. eranskinean jasota dauden ekarpen osagarriak onartzea; ekarpen horiek lankidetzaren hitzarmena izenpetu duten eta bertan adierazten diren Arabako kirol federazioentzako dira, guztira, 210.999,79 euro.

Bigarrena. Dirulaguntza emateko ebazpen hau hartu ondoren ordainduko zaizkie laguntzak, osorik, I. eranskinean zerrendatutako erakundeei, indarreko aurrekontu antolamenduaren 70.2.01.77.01.481.00.05 aurrekontu esleipenaren kontura, xedapen erreferentzia: 105-358.

Hirugarrena. Ebazpen honek administrazio bidea amaitzen du. Urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 123. artikuluan xedatzen duenaren arabera, aukerako berraztertze errekurtsoa jar dakiok Foru Gobernu Kontseiluari, hilabeteko epean, egintza hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, edota zuzenean administrazioarekiko auzien jurisdikzioan aurka egin dakiok bi hilabeteko epean, egintza hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, administrazioarekiko auzietarako epaitegietan, uztailaren 13ko 29/1998 Legeak, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duenak, 46.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko urriaren 5a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Kultura eta Kirol Saileko diputatua

ANA M. DEL VAL SANCHO

Kirol zuzendaria

ANA ROSA LÓPEZ DE URALDE GÓMEZ

I. ERANSKINA

	FEDERAZIOA / FEDERACIÓN	IFZ / NIF	DIRULAGUNTZA / SUBVENCIÓN
1	Federación Alavesa de Actividades Subacuaticas	G01047935	844,67 €
2	Federación Alavesa de Ajedrez	G01037365	3.040,83 €
3	Federación Alavesa de Atletismo	G01047257	5.743,79 €
4	Federación Alavesa de Badminton	G01058940	2.534,02 €
5	Federación Alavesa de Baloncesto	G01032960	14.528,42 €
6	Federación Alavesa de Balonmano	G01047224	2.702,96 €
7	Federación Alavesa de Beisbol y Sofbol	G01117043	2.196,15 €
8	Federación Alavesa de Bolos	G01047000	5.912,73 €
9	Federación Alavesa de Boxeo	G01047182	6.250,60 €
10	Federación Alavesa de Caza	G01047273	10.473,97 €
11	Federación Alavesa de Ciclismo	G01047596	9.122,49 €
12	Federación Alavesa de Deportes Aéreos	G01048396	1.013,61 €
13	Federación Alavesa de Deportes Invierno	G01047281	4.561,24 €
14	Federación Alavesa de Deporte Adaptado	G01178615	2.365,09 €
15	Federación Alavesa de Esgrima	G01161298	2.365,09 €
16	Federación Alavesa de Futbol	G01037886	18.920,73 €
17	Federación Alavesa de Gimnasia	G01047760	7.939,95 €
18	Federación Alavesa de Golf	G01121177	12.839,07 €
19	Federación Alavesa de Halterofilia	G01047950	3.209,76 €
20	Federación Alavesa de Hípica	G01048057	1.182,54 €
21	Federación Alavesa de Hockey	G01047919	3.547,63 €
22	Federación Alavesa de Judo y D. A.	G01041896	4.730,18 €
23	Federación Alavesa de Juegos y Deporte Vasco	G01047133	2.365,09 €
24	Federación Alavesa de Karate	G01035765	3.378,70 €
25	Federación Alavesa de Lucha	G01041474	2.365,09 €
26	Federación Alavesa de Montaña	G01033174	16.724,57 €
27	Federación Alavesa de Motociclismo	G01047893	1.351,48 €
28	Federación Alavesa de Natación	G01048578	4.730,18 €
29	Federación Alavesa de Padel	G01230663	7.095,27 €
30	Federación Alavesa de Patinaje	G01046804	4.899,11 €
31	Federación Alavesa de Pelota Vasca	G01033190	6.926,34 €
32	Federación Alavesa de Petanca	G01141340	506,80 €
33	Federación Alavesa de Piragüismo	G01034065	506,80 €
34	Federación Alavesa de Rugby	G01047570	3.209,76 €
35	Federación Alavesa de Squash	G01046960	4.899,11 €
36	Federación Alavesa de Taekwondo	G01048917	3.209,76 €
37	Federación Alavesa de Ténis	G01039726	4.054,44 €
38	Federación Alavesa de Ténis de Mesa	G01051366	4.392,31 €
39	Federación Alavesa de Tiro con Arco	G01046846	3.209,76 €
40	Federación Alavesa de Tiro Olímpico	G01047877	2.534,02 €
41	Federación Alavesa de Triatlón y DD. CC.	G01164995	1.351,48 €
42	Federación Alavesa de Vela	G01035112	3.547,63 €
43	Federación Alavesa de Voleibol	G01036532	3.716,57 €
			210.999,79 €